

2.-FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure proiektuak funtziona dezan behar ditugun bezero nagusiak kirola gustuko duten eta praktikatzen duten bezeroak dira. Kirol berriak probatzeko prest daudenak eta berrikuntzei beldurrik ez dieten bezeroak behar ditugu.

Hornitzaileak aldiz, produktu eta tresnak denbora gutxian eta egoera onean ekartzen dizkigutenak behar ditugu.

Bezeroak guretzat garrantzitsuak dira gure lana ongi egiten ari garela adierazten digutelako, eta gustora daudela guk eskaintzen dizkiegun zerbitzuekin.

Hornitzaileak aldiz, beraiek gabe ezin genezakeelako eskaintzen ditugun zerbitzu eta aukerak eman.

Gure enpresak egin dituen akordioak baliabideak eskuratzeko akordioak izan dira; Hau da, behar ditugun produktu, makineria eta lankideak lortzeko sinatutako akordioak.

Gure proiektua aurrera eramateko funtsezko eragileak hiru enpresaburuak izan gara. Laguntza asko eman diguna geure laguna izan da, eraikina prezio baxuago batean alokatu diguna. Gure lagun honek duen papela gure proiektuan oso garrantzitsua da, berari esker egin beharreko gainerako salerosketa guztiak egiteko malgutasun handia baikeneukan.

Hornitzaileak ere oso garrantzitsuak izan dira, behar izan ditugun produktu, makineria eta tresneria behar dugun unerako eta prezio onargarrian ekarri eta saldu dizkigutelako. Gainera, ordaintzerako orduan ez digute inolako kexarik jarri.

Azkenik, lan eske etorri diren langileak ere oso rol garrantzitsua dute beraiek baitira gure bezeroak gustora sentiarazten dituztenak eta kiroldegia bultzatzen dutenak. Beraiei esker lortuko dugu bezeroek gurekiko duten fideltasuna eta konfidantza.

